

TXIPIROIAK PLANTXAN

written by Errezetak



Askotan txiringito-etan jan baina etxean inoiz saiatu ez dudan errezeta da, larunbatean arrandegian prezio onean eta tira...

Osagaiak:

4 Perts.

- 8 Txapiroak
- 1 Baratxuri buru
- Olio
- Gatza

Prestaketa:

1. Baratxuri aleak zuritu. Lau gorde eta beste guztiak zatitu eta motrailuan birrindu. Motrailura olio gehitu, gorde. Txapiroiei burua eta azala kendu, barrutik ongi garbitu.



2.Zartagin edo plantxa batera olio gehitu, su oso indartsuan olio beroa dagoenean baratxuri ale osoak eta txipiroiak gehitu, bi aldetik egin.



3.Txipiroiak egin daudenean motrailuan dagoen baratxuri-olio pasta zartagin batean pittin bat egin. Txipiroiak erretilu batean jarri eta gaintik olio-baratxuri pasta edertasunez apainduz zerbitzatu.

